




GABONETAKO ZORION MEZUA

Gabonetan senideei, lagunei emateko mezua prestatuko al dugu bertsotan?
Gero, nahi duenak postal eder bat sortu dezake, eta bertsoa bertan idatzi.
Edo abestuz grabatu eta mugikorretik zabaldu liteke.
Hara hemen Gabonetan bolo-bolo zabaldu izan den zoriontzeko bertso bat!



Doinua:
Baserrian jaio nintzen
Neurri berezia



Oharkabeen badatoz
abenduko azken **egunak**,
eta gogoan ditugu
urteak eman **ditunak**.
Asko ta asko izan dira
aurtengo **gertakizunak**,
batzuetan gauza alaiak
eta besteetan **ilunak**.
Baina albora ditzagun
betiko karga **astunak**,
ta etxekoekin batera
gozatu **ospakizunak**
lekua har dezatela
bake eta **maitasunak**.
Besarkada bat bihotzez,
urte berri on **lagunak**!

